

## **Funtsezko baliabideak**

Funtsezko baliabideak enpresa bat garatzeko oso garrantzitsuak dira; izan ere, funtsezko elementuak dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-erantsia garatzeko, bezeroengana iristeko, haiekin harremanak izateko eta diru-sarrerak sortzeko.

ULEM enpresak lau funtsezko baliabide izango ditu multzo ezberdinetan sailkatuko direnak: motorzaleak, funtsezko elkarteak, langileak eta diru-laguntzak. Giza-baliabideetan, motorzaleak eta langileak daude eta finantza-baliabideetan funtsezko elkarteak eta diru-laguntzak. Hauek funtsezko baliabideak izango dira; izan ere, elementu garrantzitsuenak dira ULEM enpresa funtziona dezan.

Motorzaleak eta langileak finantza-baliabideetan sailkatzen dira; izan ere, motorzaleek enpresaren diru iturri nagusia delako. Bestalde, langileei beraien lanagatik ordaindu behar diegu.

Baliabide fisiokoak produktua sortzeko behar ditugun materialak izango dira; teknologia (kableak, argiak...) Baita txalekoak seguruak izateko behar dituen materialak, hala nola, oihalak, plastikoak etab. Hortaz aparte, produktua bezeroarengana heltzeko garraioa eta denda fisikoak ere izango dira baliabide fisikoak.

Baliabide intelektualak bi baliabide nagusitan banatzen dira; gizakiak eta makinak. Lehenengoak errepideetako segurtasuneko adituak, txalekoen muntaian diren jakitunak eta denda fisikoetan egongo diren pertsonak. Makinak txalekoaren hainbat pieza egiteko edo jartzeko programatuko dira eta beraien lana zehaztasunez egingo dute.

Giza baliabideak, lehen aipatu dugun bezala, dendetan eta lantegietan egongo diren pertsona gaituak izango dira. Hauek zerbitzu pribatua eskainiko dute denda fisikoetan eta lantegietan txalekoak egiten egongo dira. Gurekin batera lan egingo duten enpresak ere parte hartuko dute giza baliabideetan.

Finantza-baliabideak diru iturriak dira, hau da, hainbat lekutik aterako dugu dirua (ikus diru iturriak). Geroago diru hori kostu aldakorrek eta finkoak estaliko ditu. Diru iturri gehiago izaten baditugu eta kostuak berdin badaude mozkin gehiago lortuko dugu.